GARRAIO
ETA HERRILAN SAILA

176/1989 DEKRETUA, uztailaren 27koa, derrigorrezko desjabetzapenari buruzko legediaren ondorioetarako, «Bilboko Hiri Trenaren Olabeaga-Ripa bidezatia» delakoaren obrak gauzatzeko beharrezkoak diren ondasunez eta eskubideez jabetzea presazkoa dela aldarrikatzen duena. 5260

ERABAKIA, 1989.eko uztailaren 26koa, Garraio eta Herrilan Sailburuarena, aurkeztutako arrazoibideak erabaki eta «Bilboko Hiri Trenbidearen Erandioko zatiaren Taiuketa Proiektua»k eragindako ondasun eta eskubideak hartu beharra aldarrikatzen duena. 5261

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PUBLICAS

DECRETO 176/1989, de 27 de julio, por el que se declaran de urgente ocupación a efectos de la legislación de expropiación forzosa los bienes y derechos necesarios para la realización de las obras del «Tramo Olaveaga-Ripa del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao». 5260

RESOLUCION de 26 de Julio de 1989, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se resuelven las alegaciones presentadas y se declara la necesidad de la ocupación de los bienes y derechos afectados por el «Proyecto de Trazado del tramo de Erandio del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao». 5261

# Iragarpenak
# Anuncios

## Lan eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak
## Subastas y Concursos de Obras y Servicios

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

IRAGARPENA, Kontratazio Batzorde Nagusiarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardurapekoak diren ikastetxeetarako Eskola-Garraio zerbitzuak, E.A.E.ko hiru Lurralde Historikoetakoak alegia, Lehiaketa Publikoz esleitzeari buruzkoa. (K.B.N. 263/89 Esp.). 5265

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ANUNCIO de la Comisión Central de Contratación para la adjudicación mediante el procedimiento de Concurso Público, de los servicios de Transporte Escolar a los centros públicos de enseñanza dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en los tres Territorios Históricos de C.A.P.V. (Expte. C.C.C. n.º 263/89). 5265

GARRAIO
ETA HERRILAN SAILA

ERABAKIA, 1989.eko uztailaren 27koa, Garraio eta Herrilan Sailburuarena, «Olabeaga eta Ripako Kaiaren arteko Bilboko Hiri-Trenaren I. Linearen obra zibila (A Bidezatia: Olabeaga-Moyua enparantza. B Bidezatia: Moyua enparantza-Ripako Kaia)» delakoaren obrak egiteratzeko Lehiaketarako deia egiten duena. 5266

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PUBLICAS

RESOLUCION de 27 de Julio de 1989, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se acuerda convocar Concurso para la ejecución de las obras de «Obra civil de la Linea 1 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao entre Olabeaga y el Muelle de Ripa (Tramo A: Olabeaga-Plaza Moyua. Tramo B: Plaza Moyua-Muelle de Ripa)». 5266

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

**2152**

175/1989 DEKRETUA, uztailaren 18koa, Osakidetzako gaixo eta erabiltzaileen Eskubide eta Obligazioen karta onartuz.

Osasunari buruzko Lege Orokorreko 10 eta 11. atalek, herritarrek osasunketa sistemaren instituzio eta organismoekiko dituzten eskubide eta obligazioen multzoa zehazten dute.

Eusko Jaurlaritzak, herritar guztiei, osasunerako zerbitzu publikoak erabiltzen dituztenean, duintasun, errespetu eta eginkortasunez erantzun behar zaiela jakinik, Dekretu honen bidez, horretarako beharrezko

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

**2152**

DECRETO 175/1989 de 18 de Julio, por el que se aprueba la carta de Derechos y Obligaciones de los pacientes y usuarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

Los articulos 10 y 11 de la Ley General de Sanidad enumeran el conjunto de los derechos y obligaciones de los ciudadanos con las instituciones y organismos de sistema sanitario.

El Gobierno Vasco, consciente de la dignidad, respeto y eficacia con que debe ser atendida toda la población cuando utiliza los servicios sanitarios públicos quiere arbitrar mediante el presente Decreto los

diren mekanismoak agindu nahi ditu, erabiltzaileen eskubideen benetako bakarkako erabilpena ekarriko dutenak eta, horrela, bai osasunketarako profesionalek, zein horiek kudeatzeko enkargatuak dauden organo eta instituzioek ere, Osakidetzako osasun zentruetara edo berarekin zerbitzuak itundu dituzten osasunketa zentroetara hel daitezen herritar guztiekiko eta bakoitzarekiko sorospen kalitatea eta bakarkako eta errespetuzko harremana hobetzeko helburu nagusia bultzatu eta bertan parte har dezaten.

Nahi diren asmo horiek helmuga on batera iritsiko direlakoan, arau honetan, Osakidetzako edo berak itundutako zerbitzuen gaixo edo erabiltzaileek beren esku dituzten eskubide eta obligazioen karta bat jasotzen da, Osasuna babesteko konstituzio-eskubidea osatzen duten eskubide eta obligazioen sortako osakaiak bezala, horien funtsezko edukinak, Osasun Lege Orokorreko aipatu 10 eta 11. ataletan daudenak, argi eta garbi sistematizazio-arrazoiak direla bide, Dekretu honetako 3 eta 6. ataletan errepikatu egiten dira, ez ordea hitzez-hitz, zuzenbidea nabarmenduko duten errealitate konkretuen zerrenda bat osa dezaten.

Dekretu honetan, Atalburu berezi batean, ospitaleratutako umeen eskubideen multzoa jasotzen da, umeei, osasun zentro batetan barneraturik daudenean, eskaini behar zaizkien trataera eta arreta, bere garrantziagatik nabarmendu egiten direla, beroiek, eman behar zaien jaramon bereziagatik, beste gaixoak baino eskubide zerrenda luzeago bat dutelarik. Horren bidez, ospitaleratutako umearen Eskubideen Europako karta onartu zuen Europako Legebiltzarraren 1986.eko maiatzaren 13ko Erabakia kontutan hartzen da.

Halaber, emakumearen eskubide espezifiko batzu ere aitortzen dira, berarentzako zerbitzu espezifiko batzu badaudenez gero, (famili plangintza, haurdunaldi, erditze eta erdiketa ondorengo aldia, genetika aholkua etab.) zerbitzu orokorretatik ezberdinak diren errealitate bereziak edukiz.

Gaixoari Laguntzeko Zerbitzuen berregituraketak, aurkez daitezkeen murtzilo guztiak bideratzea ekarriko du eta gaixo eta erabiltzaile guztiek, osasun zerbitzuetako beren egonaldietan, dauzkaten informazio eta aholku beharrei erantzutea.

Aldi berean, erabiltzaileek egin ditzaten murtzilo ezberdinei buruz, izapideketa sistema berri bat jartzen da eta horren bidez, profesional guztien ekitate eta solidaritaterako bermeak jartzen dira gaixo eta erabiltzaileen eskubideak babestuz.

Arau hau egiterakoan, Aholku Batzorde Teknikoei eman zaie hitzpidea, Kontsumitzaileen eta Pentsionisteen Elkarteei, Mediku eta SUT-een Elkargo Ofizialei, Osasunketako Sektore Mahaiari, osasun alorreko Sindikatoei eta Osasunaren Euskal Batzordeari.

Hori dela bide, Osasun eta Kontsumo Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzako Kontseiluak mila bederatziehun eta laurogeitemeretzigarreneko uztailaren 18an egindako bere bilkuran aztertu eta onartu ondoren zera.

mecanismos necesarios que permitan el efectivo ejercicio individual de los derechos de los usuarios, de tal suerte que los profesionales sanitarios y los órganos e instituciones encargadas de gestionarlos impulsen y participen en el objetivo final de mejorar la calidad asistencial y el trato individual y respetuoso con todos y cada uno de los ciudadanos que se dirijan a los centros sanitarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o a los servicios concertados con éste.

En el ánimo de llevar a buen término los pretendidos deseos, se recoge en la presente norma una carta de los derechos y obligaciones de que disponen los pacientes y usuarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o de los servicios concertados por éste, como integrantes del haz de derechos y obligaciones que componen el derecho constitucional a la protección de la salud, cuyos contenidos básicos, comprendidos en los mencionados artículos 10 y 11 de la Ley General de Sanidad, se reproducen en algunos apartados de los artículos 3 y 6 de este Decreto, por razones evidentes de sistematización, si bien no literalmente, para configurar un elenco de realidades concretas en el que se manifiesta el derecho.

Se incluye en el presente Decreto y en Capítulo diferenciado el conjunto de derechos del niño hospitalizado, distinguiendo por su importancia el trato y cuidado que ha de ser dispensado a los niños cuando se encuentran hospitalizados en un centro sanitario, teniendo ellos, por el especial cuidado con que han de ser tratados, una relación de derechos más amplia que los demás pacientes. Con ello se toma en cuenta la Resolución del Parlamento Europeo de 13 de Mayo de 1986 que aprobó la carta Europea de los Derechos del niño hospitalizado.

Igualmente se reconocen unos derechos específicos de la mujer como usuaria de los Servicios Sanitarios en tanto que existen servicios especialmente dirigidos a ella (planificación familiar, cuidado de embarazo, parto y puerperio, consejo genético, etc.) con realidades diferenciales de los servicios generales.

La reestructuración de los Servicios de Atención al Paciente permitirá canalizar todas las reclamaciones que se formulen y atender a cuantos pacientes y usuarios tengan necesidad de información y asesoramiento durante su estancia en los servicios sanitarios.

Al mismo tiempo se introduce un sistema de tramitación sobre las diferentes reclamaciones que formulen los usuarios dando con ello garantías de equidad y solidaridad de todos los profesionales, en la defensa de los derechos de los pacientes y usuarios.

En la elaboración de esta norma, han sido oídas las Comisiones Asesoras Técnicas, las Asociaciones de Consumidores y Pensionistas, los Colegios Oficiales de Médicos y ATS, la Mesa Sectorial de Sanidad, las Organizaciones Sindicales del sector sanitario y la Junta Vasca de Salud.

En su virtud y a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Sanidad y Consumo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 18 de julio de mil novecientos ochenta y nueve.

XEDATU DUT:

## I ATALBURUA

## OSAKIDETZAKO GAIXO ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK

*1. Atala.*– ESKUBIDE OROKORRAK:

Osasun Lege Orokorreko 10. atalean agindutakoarekin bat eginik, Osakidetzako edo berarekin itundutako zerbitzuetako gaixo eta erabiltzaileek, ondorengo eskubide hauek dituzte:

a) Errespetorik haundienaz, egokitasun eta gogo onez, bakarkako eta pertsonalizatutako eran onartuak izatekoa.

b) Bere babesa eskaintzen dioneko biztanlegoaren osasun beharrei egokitutako zerbitzu sare egoki bat edukitzekoa, erosotasunez, eginkortasunez eta osasun baliabide publikoak eraginkorki erabiliz eta sorospen kalitatearen bermea duten mekanismo profesionalen bidez.

c) Bere osasun egoerari buruz behar izan dezan informazioa hartzekoa, halaber, jasan beharko duen edozein interbentzio edo terapeutikak bere osasunean eduki ditzaken ondorioei buruz ere. Halaber, berak horrela nahi badu, diagnosiarako edo terapeutikarako edozein neurri eskatzearen zergatia jakinerazi egin behar zaio edo osagarrizko aproba-eskabideaz edo horiek itxoiterakoan gehiegizko itxoinaldiei buruz ere.

d) Osasun sistemak bere osasunari buruz sor dezan informazioa, Historia Klinikoaren erabilpena araupetzen duen azaroaren 25eko 272/86 Dekretoan adierazitako bermeez, bere historia Klinikoan sartua izatekoa.

e) Bere Historia Klinikoaren konfidentzialtasuna ziurtatzekoa eta, historia hori, bere onespen espresua dagoenean salbu, osasun ikerketa anonimorako eta zerbitzuen kalitatearen ebaluaketarako ez den beste helbururako erabilia ez dela izango.

f) Horretarako ezar dadin araugintzaren esanera, tratamenduetan, kirurgi iharduketetan edo bere osasun edo bizitzaren arriskua sor dezaten terapeutika prozeduretan sartu aurretik, zalantza dagoenean, Osakidetzako beste mediku baten bigarren eritzi bat eskatzekoa.

g) Osasunketa ikerketaren sujetoa izateari uko egitekoa eta bere lehenengo helburua, terapeutika edo diagnosirako ez, baizik eta, hezkuntza edo informaziorako duen edozein sorosketa edo arakaketa arbuitzekoa.

h) Horren antzeko diagnosi, tratamendu edo prozedurari uko egitekoa, ekintza horrek, osasun edo segurtasun publikoan eraginik ez duenean.

i) Frogatu gabeko eginkortasuna duten diagnosi edo terapeutika prozedurapean ez jartzekoa.

Hori erabiltzeari, tratamendu horien arrisku eta abantailez behar bezala adierazi ondoren bakarrik emango diote baimena gaixoek eta gero kentzea ere eta, beren onespena, klinika saioei buruzko araugintzarekin bat etorriz, idatziz adierazi behar dutela.

DISPONGO:

## CAPITULO I

## DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LOS PACIENTES Y USUARIOS DEL SERVICIO VASCO DE SALUD/OSAKIDETZA

*Artículo 1.*– DERECHOS GENERALES.

De conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Ley General de Sanidad, los pacientes y usuarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o de servicios concertados por éste, tienen los siguientes derechos:

a) A ser atendidos con el máximo respeto, con corrección y comprensión y de forma individual y personalizada.

b) A disponer de una red de servicios adecuada a las necesidades sanitarias de la población a la que preste cobertura, con accesibilidad, efectividad y eficiente uso de los recursos sanitarios públicos, y con mecanismos profesionales de garantía de calidad asistencial.

c) A recibir la información que precise sobre su estado de salud, así como respecto a las implicaciones en el mismo de cualquier intervención o terapéutica a la que debe ser sometido. Asimismo deberá ser informado, si así lo desea, de la razón de solicitud de cualquier medida diagnóstica, terapéutica o petición de prueba complementaria y de las demoras excesivas en la espera de los mismos.

d) A que la información que sobre su estado de salud genere el sistema sanitario sea incorporado en su Historia Clínica con las garantías contempladas en el Decreto 272/86, de 25 de Noviembre, por el que se regula el uso de la Historia Clínica.

e) A asegurar la confidencialidad de su Historia Clínica y a que la misma no pueda ser utilizada, salvo consentimiento expreso para otro fin que no sea la investigación sanitaria anónima y la evaluación de la calidad de los servicios.

f) A solicitar, en caso de duda, una segunda opinión a otro Médico del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza antes de acceder a tratamientos, intervenciones quirúrgicas o procedimientos terapéuticos que generen riesgo para su salud o su vida, de acuerdo con la regulación que se establezca al efecto.

g) A negarse ser sujeto de investigación sanitaria y a rechazar cualquier cuidado o examen cuyo propósito primordial sea educativo o informativo y no terapéutico o diagnóstico.

h) A renunciar a diagnóstico, tratamiento o procedimiento de análoga naturaleza, siempre que el citado acto no afecte a la salud o seguridad pública.

i) A no ser sometido a procedimientos diagnósticos o terapéuticos de efectividad no comprobada.

Unicamente cuando hayan sido debidamente advertidos de los riesgos y ventajas de estos tratamientos, los pacientes podrán autorizar su aplicación, así como retirarlos posteriormente, debiendo manifestar su consentimiento por escrito de acuerdo con la normativa sobre ensayos clínicos.

j) Adimen osasuneko arazoak dituzten gaixoen kasuan, Osasunketa Agintariek bakarkako eta giza eskubideak babestekoa.

k) Itxoite-zerrendek, egon baldin badaude, Mediku presatasunaren eta itxoite aldiaren lehentsunak, ekitate erizpideak bakarrik adieraz ditzatela. Eta, dagoen atzeraketaz eta bere zergatiez informatua izatekoa.

l) Une guztian, bere diagnostikoaren eta ospitaletratamenduaren arduradun medikua zein den jakitekoa.

m) Gaixoaz arduratzen den osasunketa langilegoaren estatus profesionala, uniformearen edo beste zeinuen bidez bereizi eta ezagutu ahal izatea.

n) Urriaren 4eko 252/1988 Dekretuan ezarritako eremuan eta baldintzez, etxerako bere medikua (Mediku Orokorra eta Pediatra) aukeratzekoa.

o) Etxeko medikuaren esanera, Euskal Autonomi Elkartean egiteko dagoen horren araugintzak erabaki ditzan moduetan, ospitala eta espezializatutako Zerbitzu bat aukeratzekoa.

p) Errezetatu zaizkion sendagaiak erabiltzeko argibide zehatz eta idatziak hartzekoa.

q) Osakidetzaren Bakarkako Osasun txartela edukitzekoa, izaera pertsonala eta inorengatu ezina duena, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan balioa duena, otsailaren 16ko 26/1988 Dekretua atxikigarri zaioneko herrian osasunketa sorosketarako eskubide egiaztatzen duena.

r) Osasunketa zerbitzuen iharduketari buruzko arrenkurak, murtziloak edo iradokizunak aurkeztekoa eta, indarrean dirauten xedapenen arauera, Osasunketa Administrazioaren horiei buruzko erantzunak hartzekoa.

s) Ospitaleko mediku altaren informea jasotzekoa.

t) Osasunketa zentroan erabilitako osasun baliabideek sortutako gastuak ezagutzekoa, zuzeneko harpidedun ez izatea kontutan hartu gabe.

u) Osasunketa Agintariekin bat eginik, borondatezko iharduketan eta Osakidetzari laguntzen elkarlana egitekoa.

*2. Atala.*– UMEAK, GAIXOA ETA OSAKIDETZAREN ZERBITZUA ERABILTZEN DUENA DEN ALDETIK DITUEN ESKUBIDE ESPEZIFIKOAK.

Umeek, Osakidetzaren osasunketa zentruetan edo berarekin itundutako zerbitzuetan ospitaleratuak izan daitezenean, eskubide orokorrez gain, ondorengo beste hauetarako eskubidea izango dute:

a) Ospitalean dauden aldi guztian, ahalik eta denborarik gehien, gurasoekin edo horiek ordezka ditzan pertsonarekin egotekoa, ez ordea begirale pasibo gisa baizik eta ospitaleko elementu aktibo gisa.

b) Ahal bada egunezko ospitaleraketa.

c) Ematen zaion mediku tratamenduari eta tratamendu horrek eskaintzen dituen itxaropen positiboei buruz, bere adinari eta ezaguera-garapenari egokitutako informazioa hartzekoa.

d) Bakarkako harrera eta jarraipena izatekoa, horretarako, ahal den neurrian, erizain eta laguntzai-

j) A la tutela de los derechos individuales y sociales por las Autoridades sanitarias en el caso de pacientes con problemas de salud mental en los términos previstos en la Constitución Española.

k) A que, en el caso de que existan, las listas de espera reflejen con criterios de equidad únicamente las prioridades de urgencia médica y tiempo de espera. Y a ser informado periódicamente de la demora existente y sus causas.

l) A conocer en todo momento al médico responsable de su diagnóstico y tratamiento hospitalario.

m) A poder distinguir y reconocer fácilmente el estatus profesional del personal sanitario que le atiende a través del uniforme u otros signos.

n) A elegir su médico de cabecera (Médico General y Pediatra) dentro del ámbito y con los requisitos establecidos en el Decreto 252/1988 de 4 de Octubre.

o) A elegir Hospital y un Servicio especializado de acuerdo con su médico de cabecera en los términos que determine su regulación futura en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

p) A recibir instruciones claras y escritas sobre la utilización de los medicamentos recetados.

q) A disponer de la Tarjeta Individual Sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza como documento de naturaleza personal e intransferible, válida en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma y acreditativo del derecho a la asistencia sanitaria para la población a la que es aplicable el Decreto 26/1988 de 16 de Febrero.

r) A formular quejas, reclamaciones o sugerencias sobre el funcionamiento de los servicios sanitarios y a recibir respuesta de la Administración Sanitaria sobre las mismas en los términos establecidos por las disposiciones vigentes.

s) A recibir el informe de alta médica hospitalaria.

t) A conocer los gastos originados por el uso de recursos hospitalarios en el centro sanitario, con independencia de que no sean abonados directamente.

u) A colaborar de acuerdo con las Autoridades Sanitarias en actividades de voluntariado y apoyo al Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

*Artículo 2.*– DERECHOS ESPECIFICOS DEL NIÑO COMO PACIENTE Y USUARIO DEL SERVICIO VASCO DE SALUD/OSAKIDETZA.

Los niños, cuando sean hospitalizados en los centros sanitarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o en los servicios concertados por éste, además de todos los derechos generales,tendrán derecho:

a) A estar acompañado de sus padres o de la persona que los sustituya el máximo tiempo posible durante su permanencia en el hospital, no como espectadores pasivos sino como elementos activos de la vida hospitalaria.

b) A la hospitalización preferentemente diurna.

c) A recibir una información adaptada a su edad, su desarrollo mental, su estado afectivo y psicológico, con respecto al conjunto del tratamiento médico al que se le somete y a las perspectivas positivas que dicho tratamiento ofrece.

d) A una recepción y seguimiento individuales, destinándose en la medida de lo posible las mismas

le berak izendatuz, bai harrera horretarako zein beharrezko sorosketetarako ere.

e) Tentsiozko unetan, gurasoekin edo horiek ordezkatzen dituen pertsonarekin kontaktatzekoa, horretarako, neurri egokiak eskainiz.

f) Beste umeekin batera ospitaleratua izatekoa, ahal den guztian, nagusiekin batera ospitaleratu gabe.

g) Segurtasunerako arau ofizialekin bat eginik, altzaridun gelak edukitzekoa eta sorosketa gaietan, beharrei erantzuteko moduan.

h) Ospitaleko bere egonaldian zehar, bere eskola heziketari jarraitzekoa eta eskola agintariek bere esku jar ditzaten irakasleen erakusketen eta material didaktikoaren onuraz baliatzekoa, bereziki, luzarorako ospitaleratzea den kasuan, iharduketa horrek bere ongizateari eta/edo ematen zaizkion tratamenduei oztoporik ez sortzeko baldintzapean.

i) Ospitaleko bere egonaldian zehar, bere adinari egokitutako jostailuak edukitzekoa, liburuak eta ikusentzunezko baliabideak.

j) Behar dituen sorosketak hartzeko ziurtasunarena, gurasoek edo horiek ordezkatzen dituen pertsonak, erlijio-arrazoiak, kultura atzerapena eta aurreritziak direla bide, sorosketa horiek ukatu edo larritasun horri aurka egiteko behar diren pausuak emateko moduan ez daudenean, justiziak parte hartzea beharrezko den kasuan ere.

k) Agiri pertsonal gisa, aurraren Osasun-txartela edukitzekoa, bertan txertaketak eta bere osasunerako gainerako garrantzizko xehetasunak adierazten direla.

*3. Atala.*— EMAKUMEAREN ESKUBIDE ESPEZIFIKOAK, OSAKIDETZAKO GAIXO ETA ERABILTZAILE BEZALA.

Emakumeek, Osakidetzako osasunketa zerbitzuak edo horrek itundutako zerbitzuak erabil ditzatenean, eskubide orokor guztiez gain, beste hauetarako eskubidea izango dute:

a) Antisorketarako metodo bat aukeratzeko beharrezko informazio eta aholkularitza lortzekoa.

b) Legez ezarritako baldintza eta betebeharrez, haurdunaldiaren borondatezko etenketa egiteko informazio eta aholkularitza lortzekoa eta, hori, prozesu guztian, azkartasunik eta konfidentzialtasunik haundiena bermatuz.

c) Bere erditze unean, protagonista gisa, bere parte hartze aktiboa erreztu dakionekoa.

d) Bere konfidantzazkoa izan dadin pertsona batek lagun diezaioneko eskubidea, bai erdiketa aurreko aldian, bai erdiketa-aldian eta bai erditu ondorengo berehalako aldian ere.

e) Bai haurra eta bai haren aita ere, ahal den lasterren, bere inguruan izateko eskubidea, erditu ondoren eta ospitalean egon dadin egunetan.

f) Mediku-ikuspuntutik behar-beharrezkoak izan ez eta bere osasunerako edo haurraren osasunerako arriskurik gabe albora daitezkeen interbentzioei buruzko informazioa eta horiei buruzko erabakiak hartzeko eskubidea, adibidez, erdiketa arintzea edo etxeragotzea xedetzat duten interbentzioak, anelgesia ematea, enema, rasuraketa, episiotomia, e.a.

enfermeras y auxiliares para dicha recepción y los cuidados necesarios.

e) A contactar con sus padres o con la persona que los sustituya, en momentos de tensión, disponiendo a tal efecto de los medios adecuados.

f) A ser hospitalizado junto a otros niños, evitando todo lo posible su hospitalización entre adultos.

g) A disponer de locales amueblados y equipados de modo que respondan a sus necesidades en materia de cuidados, de educación y de juegos, de acuerdo con las normas oficiales de seguridad.

h) A proseguir su formación escolar durante su permanencia en el hospital, y a beneficiarse de las enseñanzas de los maestros y del material didáctico que las autoridades escolares pongan a su disposición, en particular en el caso de una hospitalización prolongada, con la condición de que dicha actividad no cause perjuicios a su bienestar y/o que no obstaculice los tratamientos que se siguen.

i) A disponer durante su permanencia en el hospital de juguetes adecuados a su edad, de libros y medios audiovisuales.

j) A la seguridad de recibir los cuidados que necesita, incluso en el caso de que fuese necesaria la intervención de la justicia, si los padres o la persona que los sustituya se los niegan por razones religiosas, de retraso cultural, de prejuicios o no están en condiciones de dar los pasos oportunos para hacer frente a la urgencia.

k) A disponer de la Cartilla sanitaria infantil como documento personal en el cual se reflejen las vacunaciones y el resto de datos de importancia para su salud.

*Artículo 3.*— DERECHOS ESPECIFICOS DE LA MUJER COMO PACIENTE Y USUARIA DEL SERVICIO VASCO DE SALUD/OSAKIDETZA.

Las mujeres cuando utilizan los servicios sanitarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o los servicios concertados por éste, además de todos los derechos generales, tendrán derecho:

a) A obtener la información y asesoramiento necesario para la elección de un método anticonceptivo.

b) A obtener la información y el asesoramiento para la práctica de la interrupción voluntaria del embarazo en las condiciones y con los requisitos legalmente establecidos, garantizando la máxima rapidez y confidencialidad en todo el proceso.

c) A que se le facilite su participación activa como protagonista de su parto.

d) A estar acompañada por la persona de su confianza durante el tiempo anterior al parto, durante el parto y en el periodo inmediatamente posterior al mismo.

e) A tener a su lado al niño así como a su padre, tan pronto como sea posible, después del parto y durante la estancia en el hospital.

f) A ser informada y a poder decidir cuando se planteen intervenciones no estrictamente necesarias desde un punto de vista clínico, y que pueden obviarse sin perjuicio para su salud o la del niño, tales como: intervenciones tendentes exclusivamente a acelerar o retardar el parto, aplicación de analgesia, enema, rasurado, episiotomía, etc.

g) Haurdun izanaren Kartila, agiri pertsonal gisa, izateko eskubidea, haurdun-aldian egin zitzaizkion aldian-aldiko arakaketak jasoko direla bertan.

*4. atala.*– GAISOEK BETE BEHARREKOAK

Osakidetzako osasun-zerbitzuez edo Osakidetzak kontratatutako zerbitzuez balia daitezen gaisoek, Erabiltzaileek eta Familiakideek, honako eginbehar hauek bete beharko dituzte Osasun-Lege Orokorreko 11. atalak ezartzen duenaren arabera:

a) Osasun erakundeetarako ezarrita dauden arauak eta instrukzioak betetzea.

b) Osasun Erakundeetako langileak, gainontzeko gaisoak eta hauen laguntzaileak begirune handiz tratatzea.

c) Osasun instituzioetako instalazioak zaintzea eta bertan egoteko erosotasunei eusten laguntzea.

d) Borondatezko alta-agiria izenpetzea, tratamendu-metodoak ez onartzea gerta dadinean.

e) Zentruen ihardueran ikus ditzakeen akatsen, Osasun Erakundeetako arduradunei, berri ematea.

f) Osasun Txartel Indibiduala eramatea beti, osasun zerbitzuak eska daitezenean.

g) Halako beharrei erantzuteko sortu ziren larrialdi-zerbitzuak, horietarako bakarrik erabiltzea, ohizko zerbitzuen sarera gehienbat joz.

## II ATALBURUA

## OSASUNKETARAKO EUSKAL ADMINISTRAZIO PRUBLIKOAREN IHARDUEREI BURUZKO ERIZPIDE OROKORRAK

*5. atala.*– ORGANUEN ETA PROFESIONALEN OHARDUERA.

Osasun eta Kontsumo Saileko eta Osakidetzako zuzendaritza-organuek, nahiz sorospen, nahiz administrazio mailakoak izan, eta horietan lana egiten duten profesional guztiek, erabiltzaileak, osasun-zerbitzu publikoez baliatzean, dituen eskubideak benetan bete daitezela, erraztuko dute beren ekintzen bidez.

*6. atala.*– ESKUARTEEN ARTIKULAKETA.

Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetzak, beharrezko diren eskuarteak jarriko dituzte Osasun-Lege Orokorrak eman eta Dekretu honen bidez arautzen diren eskubideak, osasun-zerbitzu publikoetako erabiltzaileek gauzatu ditzaten.

*7. atala.*– OSAKIDETZAKO GAISOEI ETA BERTAKO ZERBITZUEN ERABILTZAILEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUEN BIRREGITURAKETA.

Gaisoari Laguntzeko Zerbitzuak birregituratu egiten dira, aurrerantzean Gaiso eta Erabiltzaileari Laguntzeko Zerbitzuak izena hartuko dutela (G.E.L.Z.) eta honako era honetan definitzen direla: Osasun-zerbitzu publikoen erabiltzaileei atenditzea-

g) A disponer de la Cartilla de la Embarazada como documento personal, donde se reflejen las revisiones periódicas durante el embarazo.

*Artículo 4.*– OBLIGACIONES DE LOS PACIENTES.

Los pacientes, Usuarios y Familiares cuando utilizan los servicios sanitarios del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o los servicios concertados por éste habrán de cumplir, de conformidad con el artículo 11 de la Ley General de Sanidad, con las obligaciones siguientes:

a) Colaborar en el cumplimiento de las normas e instrucciones establecidas en las instituciones sanitarias.

b) Tratar con el máximo respeto al personal de las instituciones sanitarias, a los otros enfermos y a sus acompañantes.

c) Cuidar las instalaciones y colaborar en el mantenimiento de la habitabilidad de las instituciones sanitarias.

d) Firmar el documento de alta voluntaria en los casos de no aceptación de los métodos de tratamiento.

e) A poner en conocimiento de los responsables de las Instituciones Sanitarias las irregularidades que observe en el funcionamiento de los Centros.

f) A llevar la Tarjeta Individual Sanitaria siempre que se requieran servicios sanitarios.

g) A utilizar los servicios de urgencia con la finalidad, de necesidad, para la que están creados, acudiendo preferentemente a los circuitos de servicios ordinarios.

## CAPITULO II

## CRITERIOS GENERALES DE ACTUACION DE LA ADMINISTRACION PUBLICA SANITARIA VASCA

*Artículo 5.*– ACTUACION DE LOS ORGANOS Y PROFESIONALES.

Todos los órganos directivos, tanto asistenciales como administrativos, del Departamento de Sanidad y Consumo y del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, y todos los profesionales que presten en ellos sus servicios, facilitarán, en sus diferentes actuaciones, el ejercicio efectivo de los derechos de los usuarios cuando éstos utilizan los servicios sanitarios públicos.

*Artículo 6.*– ARTICULACION DE MEDIOS.

El Departamento de Sanidad y Consumo y el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza arbitrarán los medios necesarios para que los usuarios de los servicios sanitarios públicos puedan ejercer los derechos que les reconoce la Ley General de Sanidad y los que se regulan en el presente Decreto.

*Artículo 7.*– REESTRUCTURACION DE LOS SERVICIOS DE ATENCION AL PACIENTE Y USUARIO DEL SERVICIO VASCO DE SALUD/OSAKIDETZA.

Se reestructuran los Servicios de Atención al Paciente, pasando a denominarse Servicios de Atención al Paciente y Usuario (S.A.P.U.), definidos como Unidades Administrativas responsables de atender a los usuarios de los servicios sanitarios públicos, velando

ren ardura duten Administrazio-Unitateak dira, Dekretu honetan aipatzen diren eskubide eta eginbeharrak bete daitezen zainduko dutela eta beharraldi guztietan lagundu.

*8. atala.*— EGITEKOAK.

1. Honako hauek izango dira Gaiso eta Erabiltzaileari Laguntzeko Zerbitzuen egitekoak:

a) Osakidetzako zentruetara doazenean edo bertan ingresatzen dutenean, gaisoei eta familiakideei informazioak eta norabideak ematea.

b) Osasun-Lege Orokorrean eta Dekretu honetan arautzen diren gaiso eta erabiltzaileen eskubideak, bete daitezela zaintzea.

c) Erabiltzaileek aurkeztu ditzaten murtzilo eta iradokizunak entzun, tramitatu eta bultzatzea.

d) Aurkezpenaren gai izan diren kexa eta murtziloei edo iniziatiba propioz burututako ekintzei Ebazpena eman diezaiela dagokion zuzendaritza-organuak proposatzea, arlo horri dagozkionetan indarrean dauden arauen arabera.

e) Zentruko Zuzendaritzak, gaiso eta familiakideei dagozkienetan, ezarritako eginbeharrak eta arauak bete daitezela zaintzea.

f) Bezero-inkestak burutzea, Zentruko Zuzendaritzari emaitzen berri eman beharko diotela.

g) Gaiso eta erabiltzaileen egonaldiak hobetzea xedetzat duten eta Zentruko Zuzendaritzak edo Areako Zuzendaritzak izendatutako gainontzeko egiteko guztiak.

*9. atala.*— MURTZILOAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK BIDERATZEA.

Osakidetzako langileek, lehen aipatu diren egiteko horiek betetzen laguntzeko xedez, erabiltzaileek, familiakideek eta gaisoek aurkeztutako murtziloak, kexak eta iradokizunak bideratuko dituzte Gaisoei eta Bezeroei Laguntzeko Zerbitzuetara, Dekretu honetan onartzen diren eskubideak erabil ditzaten erraztuz.

## IV ATALBURUA

## KEXAK ETA MURTZILOAK TRAMITATZEA.

*10. atala.*— INIZIATIBA.

Gaisoei eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuak, iniziatiba propioz eta gaisoek, familiakideek edo erabiltzaileek hala eskatuta ihardungo du, zerbitzu horien laguntza edozein unetan eskatu ahal izango dutela erabiltzaile horiek.

*11. atala.*— KEZAK ETA MURTXILOAK TRAMITATZEKO SISTEMA.

Osasun eta Kontsumo Sailaren Aginduz garatuko da Kexak eta Murtziloak Tramitatzeko Sistema, arintasuna eta erraztasuna hartuko direla kontutan horretarako. Dena dela, honako arau hauek kontutan hartu beharko dira:

a) Gaisoei eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuek, erabiltzaileak hitzez aurkeztutako kexak idatzi beharko dituzte, idazteko edo esateko eragozpenak dituzten pertsonenak izan daitezenean.

b) Kexa eta Murtziloen izenpetzaileek, beren kexa zein tramitapen-alditan dagoenari eta, finkatu diren

por el cumplimiento de sus derechos y obligaciones, enumerados en el presente Decreto, y orientándoles en todo lo que precisen.

*Artículo 8.*— FUNCIONES.

1. Las funciones de los Servicios de Atención al Paciente y Usuario serán las siguientes:

a) Recibir información y orientar a los pacientes y familiares cuando acuden o ingresan en los centros sanitarios del Servicio Vasco de Salud/ Osakidetza.

b) Tutelar el cumplimiento de los derechos de los pacientes y usuarios regulados en la Ley General de Sanidad y en este Decreto.

c) Atender, tramitar e impulsar todas las quejas, reclamaciones y sugerencias que se presenten por los usuarios.

d) Proponer al órgano directivo competente Resolución sobre las quejas, reclamaciones presentadas o sobre las actuaciones de tutela llevadas a cabo por propia iniciativa, de acuerdo con la reglamentación vigente al efecto.

e) Velar por el cumplimiento de las obligaciones y de las normas dictadas por la Dirección del centro respecto a los pacientes y familiares.

f) Realizar encuestas de usuarios comunicando sus resultados a la Dirección del Centro.

g) Aquellas otras funciones dirigidas a mejorar la estancia de los pacientes y usuarios, que les sean asignadas por la Dirección del Centro o la Dirección de Area.

*Artículo 9.*— CANALIZACION DE RECLAMACIONES, QUEJAS O SUGERENCIAS.

El personal del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, al objeto de coadyuvar en el cumplimiento de esas funciones, canalizará en los Servicios de Atención al Paciente y Usuario las reclamaciones, quejas y sugerencias que los usuarios, familiares y pacientes presenten, facilitándoles el ejercicio de los derechos reconocidos en este Decreto.

## CAPITULO IV

## TRAMITACION DE QUEJAS Y RECLAMACIONES

*Artículo 10.*— INICIATIVA.

El Servicio de Atención al Paciente y Usuario actua por propia iniciativa y a petición de pacientes, familiares o usuarios, que pueden en todo momento recabar la actuación de estos servicios.

*Artículo 11.*— SISTEMA DE TRAMITACION DE QUEJAS Y RECLAMACIONES.

Mediante Orden del Departamento de Sanidad y Consumo se desarrollará el Sistema de Tramitación de Quejas y Reclamaciones ajustándose a criterios de celeridad y sencillez. En todo caso habrán de tenerse en cuenta las normas siguientes:

a) Los Servicios de Atención al Paciente y Usuario vendrán obligados a transcribir las quejas presentadas verbalmente cuando se trate de personas con dificultades de escritura o de expresión.

b) Los firmantes de las Quejas y Reclamaciones recibirán comunicación escrita sobre el trámite en

epeen barruan, zein irtenbide onartu denari buruzko idatzizko berriak hartuko dituzte.

c) Gaisoei eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuek, beren aurrean egindako murtzilo guztiak sartuko dituzte errejistroan, kexa haren kontrakoa deneko zentrua kontutan hartu gabe eta, gero, haren kontrakoa deneko zentrura bidaliko direla.

d) Gaisoei Laguntzeko Zerbitzuek, aurkezpenaren gai izan diren kexa eta murtziloen ikerketa egiterakoan, horiek eragina duteneko alde guztien eritziak jasoko dituzte, artekotza-proposamenak egin ahal izango dituela gaiaren izakerak horretarako bide eman dezanean.

e) Osasun-langileen ekintza edo jarreren aurkako kexa edo murtziloak izan daitezenean eta unitate edo zerbitzu baten eraketa edo iharduerari buruzkoak izan eta nolabaiteko garrantzi edo larritasuna izan dezatenean, Batzorde Aholkulari Teknikoen, Sendagileen edo Teknika-Sorospen mailako Batzordeen, Kolegio Profesionalen, Osasun-Mahai Sektorialaren eta Kontsumitzaileen eta Bezeroen Elkarteen eraitzia eskatu beharko da Ebazpena eman baino lehen eta interesdunen titularitatea kontutan hartuko dela horretarako.

f) Gaisoei Laguntzeko Zerbitzuek, Zentruko Zuzendaritzara bidaliko dute azken txostena, honek, aurkezpenaren gai izan diren kexa eta murtziloei buruz hartutako Erabakiaren berri emango diela horretan interesdun guztiei.

*12. atala.*— JAZARPENAK EGITEKO BESTE BIDE BATZUK.

Gaiso eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuetan kexak edo murtziloak sartzeak, ez dakar, salaketaren gai izan den ekintzaren aurkako murtziloa egiteko eta beste edozein bide erabiltzeko legez finkatutako lege-epeak erabil ezin daitezkeenik.

*13. atala.*— ARAU-HAUSTEAK KONPONTZEA.

1. Kexa edo murtziloren baten gai izan diren ekintzak ziurtatu ondoren, horietan artezko egintea duten Zuzendaritza-Organuak izango dira aipatu diren arau-hausteak konpon daitezenaren arduradun, beti ere, horien ekintzak arautu ditzaten aurrekontu eta lege mailako mugen barruan.

2. Langileek burututako ekintza edo jarreren aurkako kexa edo murtziloei, kasuari aplikagarri zaizkion disziplina-arau bereziak kontutan hartuz emango zaie ebazpena. Eta, hori, ekintzak direla eta, bakoitzari legozkiokeen erantzukizunen kaltetan gabe.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Osakidetzak, fisiko eta giza mailako baliabideen egokiketa egingo du hiru urteko gehienezko epearen barruan; eta, hori, haurrek ospitaleetan dituzten eskubideei buruzko Europako Kartak ezartzen duena eta Dekretu honen bidez aipatutako Zerbitzuei ematen zaizkien egitekoak betetzeko beharrezko diren baliabideak, bai pediatria-ospitalizazioek eta bai Gaisoei eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuek ere, izan ditzaten.

*Bigarrena.*— Onarpenetarako Unitate berezirik egon ez dadin Osasun-Zentruetan, Gaisoei eta Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzuek, zerbitzu-eskabideak, Aurre-Zita, Itxaron-Zerrenda eta abar antolatze eta horiek errejistratze-lanak burutuko dituzte.

que se encuentra su queja y de la solución adoptada dentro de los plazos que se determinen.

c) Los Servicios de Atención al Paciente y Usuario registrarán todas las reclamaciones que ante ellos se formulen, con independencia del centro destinatario de la queja, al que será remitido por éstos con posterioridad.

d) En la investigación de las quejas y reclamaciones presentadas, los Servicios de Atención al Paciente habrán de recoger el parecer de todas las partes afectadas pudiendo formular propuestas de mediación cuando la naturaleza del tema así lo permita.

e) En los supuestos de quejas o reclamaciones presentadas contra actuaciones o conductas del personal sanitario, y aquellas que refiriéndose a la organización o funcionamiento de una unidad o servicio, puedan representar cierta relevancia o gravedad, deberá, con carácter previo a su Resolución, solicitarse el criterio, en su caso, de las Comisiones Asesoras Técnicas, las Juntas Facultativas o Técnico Asistenciales, Los Colegios Profesionales, La Mesa Sectorial de Sanidad, y las Organizaciones de Consumidores y Usuarios, atendiendo a la titularidad de los afectados.

f) Los Servicios de Atención al Paciente enviarán el informe final a la Dirección del Centro quien contestará a todas las partes implicadas la Resolución adoptada, respecto a las quejas o reclamaciones presentadas.

*Artículo 12.*— OTRAS VIAS DE RECLAMACION.

La interposición de quejas o reclamaciones en los Servicios de Atención al Paciente y Usuario no suspenderá el transcurso de los plazos legales fijados para la utilización de cualquier otra via de reclamación contra el hecho denunciado que disponga la legislación vigente.

*Artículo 13.*— SUBSANACION DE IRREGULARIDADES.

1. Comprobados los hechos contenidos en las quejas o reclamaciones, los Organos Directivos con competencia directa en los mismos, son responsables de que se proceda a subsanar las irregularidades descritas, dentro de las limitaciones presupuestarias y legales que regulen sus actuaciones.

2. Las quejas o reclamaciones contra actuaciones o conductas del personal se resolverán atendiendo a las normas disciplinarias específicas aplicables. Todo ello sin perjuicio de las responsabilidades que por los hechos pudiera corresponder.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*— El Servicio Vasco de Salud/Osakidetza procederá, en el plazo máximo de tres años, a la adecuación de los recursos físicos y humanos existentes para que tanto las hospitalizaciones pediátricas como los Servicios de Atención al Paciente y Usuario dispongan de los medios necesarios para cumplir conjuntamente la Carta Europea de los derechos de los niños en los hospitales y las funciones que el presente Decreto atribuye a los Servicios citados.

*Segunda.*— En aquellos Centros Sanitarios en los que no exista una Unidad específica de Admisión, los Servicios de Atención al Paciente y Usuario realizarán las funciones de organización y registro de la solicitud de servicios, Cita Previa, Lista de Espera, etc.

*Hirugarrena.*– Osasun eta Kontsumo Sailak, Dekretu honetako 11. atalean aipatzen den Kexa eta Murtzilo-Sistema garatuko du, bi hilabeteko epearen barruan.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honetan ezartzen dena garatzeko eta betetzeko beharrezko diren xedapenak emateko esku ematen zaio Osasun eta Kontsumo Sailburuari.

*Bigarrena.*– Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean, jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko uztailak 18.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun eta Kontsumo Sailburua,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

*Tercera.*– En el plazo de dos meses, el Departamento de Sanidad y Consumo desarrollará el Sistema de Tramitación de Quejas y Reclamaciones a que se refiere el artículo 11 de este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Sanidad y Consumo para dictar las disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de Julio de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Norgehiagoka eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**2153**

AGINDUA, 1989.eko ekainaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, Batxilerreko Institutoetan plazak zerbitzu-aldian betetzeko merezimendu lehiaketarako dei egiten duena.

Batxilerreko Institutoetan klaseak emateko plaza bete gabeak daudenez, eta goi-mailako titulua duten OHOko irakaslegoko funtzionariek egiteko horiek 1988/89 ikasturtean bete ditzaten egokitzat jo denez, deialdia egin da; horren ondorioz, OHOko 119 irakaslek eman dituzte klaseak aurtengo ikasturtean Batxilerreko Institutoetan.

Esperientzia hori ontzat eman denez, eta OHOko irakasleok eurak aurten ere aukeratuak izatea komenigarria izanik, derrigorrezkoa da hori bideratuko duen formularen bat bilatzea; hona hemen horretarako

OINARRI-ARAUAK:

*Lehenengoa.*– Goi-mailako tituludun OHOko irakasleek Batxilerreko Institutoetan bete behar dituzten plazen gehienezko kopurua 119koa da.

*Bigarrena.*– Ihardunean dauden OHOko irakaslegoko funtzionariak izan, Euskal Autonomi Elkartean bete euren lana eta Injeniari edo Arkitektu izan daitezenek parte har dezakete deialdi honetan, eta

**DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION**

**2153**

ORDEN de 26 de Junio de 1989, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca concurso de méritos para proveer, en régimen de comisión de servicios, plazas en Institutos de Bachillerato.

Existiendo vacantes para impartir clases en Institutos de Bachillerato y habiéndose considerado adecuado que funcionarios del Cuerpo de profesores de EGB, con titulación superior, pudieran realizar esas tareas, en el curso 1988/89 se ha realizado una convocatoria que ha posibilitado que 119 profesores del Cuerpo de EGB hayan impartido clases durante el presente curso escolar en Institutos de Bachillerato.

Considerando que la experiencia ha sido positiva, así como la conveniencia de que sean en lo posible los mismos profesores de EGB los que sigan impartiendo clases en Institutos de Bachillerato, se hace necesario arbitrar una fórmula para ello, de acuerdo con las siguientes

BASES:

*Primera.*– El número máximo de plazas a proveer en Institutos de Bachillerato por profesores de EGB con titulación superior, se fija en 119.

*Segunda.*– Podrán participar en esta convocatoria los funcionarios del Cuerpo de profesores de EGB, en activo, que presten servicios en esta Comunidad Autónoma y que estén en posesión del título de Li-